

Iran

EKIALDE HURBILEKO HARRIBITXIA



Irudika ezazu basamortu errukigabez, elurtutako mendi
ikaragarri, mirari arkitektoniko txundigarri eta planetako
herri abegikor eta atseginetako batekin zipriztindutako
lurralde bat. Antzinateko Persia da, harribitxi aparta.

Testua eta argazkiak: **Aleix Oriol**



IRAN

Lehen aldiz 2014an bisitatu nuen Iran. Bidaiari ugarik egindako gomendio etengabeak jarraituz, Ekialde Hurbiletik zehar bakarkako bidaia bat abiatzea erabaki nuen azkenean, antzinateko Persiari garrantzi berezia eskainiz. Hurbilenekoei nire erabakiaren berri ematean, kezka nagusitu zen. «Lurrotan fanatiko hutsak dira-eta!», esaten zidaten etengabe. Bada, errealitatea guztiz ezberdina da: Iran herrialde izugarri segurua da, eta bertako herritarrak bisitatu ditudan herrialde ugarietako abegikor eta atseginen artean daude. Horri guztiari prezioak oso baxuak direla eta garraio eta turismo arloetako azpiegiturak oso lehiakorrek direla gaineratzen badiogu, azkar ulertuko duzue zergatik ari den gutxika-gutxika Iran Ekialde Hurbileko harribitxi turistiko bihurtzen. Nire kasuan, aitortu beharra dut 2014an egindako bidaiak aztarna ezabaezina utzi zidala: ordudanik hainbat aldiz bisitatu dut herrialdea.

Iran historia oparoko herrialdea da. Persiako Inperioa antzinateko garrantzitsuenetakoa izan zen, zibi-

lizazio eta kultura ugari bildu zituen lurralde izugarri handia barnebilduz. Orduko ondare kultural eta historikoa bizi-bizirik da oraindik herrialdeak dituen aztarna ugarietan, Persepolis ezaguna buru. Iraneko azken hamarkadotako historia, hori bai, 1979ko iraultzari erabat lotuta dago; orduko hartan, herritarren altxamenduak Mohammad Reza xah herrialdea uztera behartu zuen, Khomeini aiatolak zuzendutako Irango Islamiar Errepublika ezarriz. Egun asko dira erregimen teokratikoaren aurka eta gobernu demokratiko bat ezartzearen alde dauden herritarrak, baina, egiari zor, aukera horrek kimera hutsa dirudi uneotan.

Teheran, metropoli ikusgarria

Nire bidaia, bestela ezin zen izan, Teheran Irango hiriburu erraldoian hasten da. Bederatzi milioi pertsonaren etxe, metropoli izugarri hau kaotikoa eta lilaragarria da aldi berean; egia da herrialdeko beste hiri batzuen altxor arkitektoniko edo artistikorik ez duela, baina Iran bezalako herrialde poliedriko baten kon-

plexutasuna ulertzen saiatu nahi duen orok derrigorean bisitatu beharreko lekua da. Hiria Alborz mendikate txundigarriak inguratzen du iparraldean; bertako gailurrik altuena Damavand da, 4.800 metrotik gorako sumendi aktiboa. Metropoliko iparraldean daude kokatuta Teherango auzorik aberatsenak, eta, pobreenak, berriz, hegoaldean. Aipatu ere Teheranek ez duela ingurune turistiko zehatzik, bertako leku interesgarrienak hirian zehar barreiatuta baitaude.

Hiriaren iparraldeko mugetan Darband auzoa dago, aire purua arnastu eta erdialdeko zaratatik ihes egiteko aukera ematen duen ingurune menditsu batean. Auzoak ibaiertzean kokatutako establezimendu pintoresko ugari ditu, zerbait jan edo te bat edaten dugun bitartean paisaia ikusgarriekin gozatzeko aukera ematen digutenak. Irango familiek euren aisialdian zer egiten duten lehen eskutik ezagutzeko ere leku ezin hobea da. Ausartene txango bat egin eta hiriaren inguruko mendi ikusgarrietan barneratzeko aukera ere badute. Hori bai, derrigorrezkoa da irandarren den-

bora-pasa nagusiari gutxien-gutxienez egun bat eskaintzea eta piknik bat egitea. Irandarrek piknikak pasioz maite dituztela jakiteko herrialdean egun gutxi batzuk ematea nahikoa da: lorategiak, parkeak, edozein bide bazter... da egokia etxeko jaki gozoak senitarteko eta lagunez inguratuta patxada ederrean dastatzeko.

Irindarrak izugarri atsegin eta abegitsuak dira, eta, hala, atzerritarrekin elkartzeko maite dute. Hori bai, ezinbestekoa da persiarrek *taarof* bezala ezagutzen duten kortesiazko arau erraz bat aipatzea. Mendez mende, oraindik ere indarrean den kortesiazko kode konplexu bat garatu dute, eta ezezagun bat aurkitzean indarrean jartzen dute. Oro har, irandarrek ezezagunak gutxienez hiru bider errefusatu behar dituen gonbidapenak luzatzen dituzte; bazkaltzeko, euren etxea bisitatzeko, jatetxe bateko kontua ez ordaintzeko... Bada, hiru uko horien ostean gonbidapenak indarrean jarraitzen badu, edukazio onetako da gonbidapena onartzea. Ezezagunengatik horrelako eskuzabaltasun

Bameko zitadela.
Erreportajea
irekitzen duten
orrialdeetan, Ganjali
Khaneko plaza
nagusia eta
Khomeini aiatolaren
murala AEBetako
enbaxada zaharreko
horman.



IRAN

Eskuineko argazkian Azadi dorre ikusgarria, Teheranen. Beheko argazkian, Tajrisheko bazarra, hau ere Iraneko hiriburuan.



keinuk jasotzera ohitu gabeko atzerritarrentzat pixka bat nahasgarria ere izan daiteke *taarof* kortesiazko araua hasiera batean.

Mendebaldeko bisitarientzat bitxia suertatzen den beste ezaugarri bat bizitza publikoaren eta pribatuaren artean dagoen arrakala izugarria da. Iraultzaren ostean Islamiar Errepublikak ezarri eta gero, irandarrek aiato-len erregimenak jarritako arau zorrotzetara egokitu beste aukerarik ez zuten izan. Gaur egun, gainera, emakumeek belo islamiarra eramateko duten derrigortasunari, sare sozial nagusien blokeoari eta herrialde osoan alkohola saltzeko debekuari bestelako arazo are larriagoak gehitu zaizkio: disidentzia politikoaren kontrol zorrotza eta erregimenaren zilegitasuna zalantzan jartzen duten iritziak adierazteko askatasun eza.

Debekuetara egokitu

Urteek aurrera egin ahala, irandarrak debekuetara egokitzen jakin dute euren ohiko asmamen eta pertseberantzia erakutsiz. Herrialdean egin ditudan bidaietan, etxeko ateen barrualdean benetan nola bizi diren erakutsi didaten familia ugariarekin ostatu hartzeko zorzea izan dut. Nire ustez, modu aparta da hori irandarrak benetan nola bizi diren eta nolakoak diren ezagutzeko. Bilerek izugarritzko garrantzia dute persiarren egitura sozialean, adin guztietako senitartekoak biltzen baitira etxean egindako jakiez, musikaz eta dantzaz jai giro apartean gozatzeko. Familia ugari edari alkoholdunak ere prestatzen dituzte etxean bertan herrialdean indarrean den debeku zorrotzari aurre egiteko. Hori bai, erregimenak indarrean jarritako debekuen ondorioz, gaur egun herrialde osora debekatutako produktuak eramaten dituzten kontrabando sare ugari ere badaude, dirua barra-barra egiten dutenak.

Bertako familia batentzat, atzerritar baten konpainia izatea poz eta harrotasun iturri da, mahaia eta euren herrialdeari edo kanpotarrarenari buruzko elkarrizketa on bat partekatuz izugarri gozaten baitute. Hori bai, aurreiritziei jaramon eginez ez dugu inolaz ere pentsatu behar irandarrak euren herrialdetik kanpora gertatzen denaren inguruko informaziorik ez dutenik, ez baita horrela. Gainera, erregimenak ezarritako debekuak debeku, herritar ugari sare sozialak ere erabiltzen dituzte munduan gertatzen denaren gaineko informazio puntuala jasotzeko.

Irango hiriburua iparraldeko nire bidaiari jarraipena emanez, Tajrix auzo pintoreskora noa, bazar txiki baina txundigarri bat izateagatik ezaguna: herritarrek era guztietako barazki, fruitu, espezie, bitxi eta arropak erostera gerturatzen dira bertara. Ekialde Hurbileko herrialde gehienetan gertatzen den bezala, hirietako bizitza sozialaren gune nagusietakoak bazarrak dira Iranen ere. Azken batean, erosketak egiteaz gain, he-

rritarrek aisialdirako ere erabiltzen dituzte, pasta gozo batzuekin lagundutako te bat hartu eta lagunekin lasai-lasai hitz egiteko.

Museo Nazionala, derrigorrez bisitatu behar

Heldu da Teherango hegoalderantz abiatzeko unea, bertan baitaude hiriko interesgune artistiko eta historiko nagusietako hainbat. Derrigorrean bisitatu beharreko guneetako bat Irango Museo Nazionala da, bi eraikinetan banatuta dagoena, bat islamaren aurreko aroari eskainia eta bestea islamaren iritsieraren ostekoari. Eraikin bakoitzak bere sarrera propioa du, baina onena sarrera bateratua erosi eta bi erakusketak bisitatzeko da. Islamaren aurreko aroari eskainitako erakusketan, garai historiko ezberdinetako pieza txundigarriak ikus daitezke, tartean baita antzinateko inperiorik handiena izan zen Akemenestar Inperioako ere. Islamaren iritsieraren osteko aroari eskainitako eraikinean, berriz, inspirazio musulmaneko harribitxiak aurkituko ditugu: erabat dekoratutako ate ikusgarriak, Koranaren bertsiio zaindu ugari... Bisitatzea merezi duen beste museoetako bat Harribitxi Museo Nazionala da, Banku Zentralaren sotoan kokatutakoa. Bilduma ikaragarria gordetzen du, baita persiar errege dinastia ezberdinenak izandako beste-lako pieza preziatu ugari ere.

Teheran hegoaldeko txangoari jarraipena emanez, Golestan jauregi izugarria helduko gara, Kayar dinastiaren egoitza izan zena XVIII. mendetik XX. mendera. Antzinateko zitadela zegoen gunean dago eraikita jauregia, eta interes artistiko eta arkitektoniko izugarriko hainbat eraikin eta gune biltzen ditu, tartean Marmolezko Tronua, Harrera Aretoa edota Ispiluen Aretoa. Jauregitik oso gertu dago Bazar Handia ere, munduko handiena. Estalpeko kaleketan, batzuk hamar kilometro izatera heltzen dira, bidaiariak imajinatu ere ezin dituen askotariko zerbitzu eta ondasunak aurkituko ditu, baita jatetxe, banku, meskita eta ostatuak ere. Mundu musulman osoan, bazarrak izan dira antzinatek bizitza ekonomiko, sozial eta politikoaren ardatz nagusietako bat. Dendak belaunaldiz belaunaldi igaro ohi dira, ondasun izugarri preziatu gisa. Eta ez da harriztekoa: bazarretan egiten diren merkataritza akordioek izugarritzko pisua baitute Irango ekonomian.

Teheranen gauden bitartean Iranian Artists Forum zentro kulturala bisitatzeko ere benetan merezi du. Hainbat erakusketa areto ditu, baita liburuak eta persiar musika saltzen dituen denda bat ere. Artista gazteen bilgune da zentroa, beraien lanak nolabaiteko askatasun giroan aurkezteko aukera ematen diena. Zentroa inguratzen duen parkea ere leku bikaina da teherandarrek euren aisialdia nola igarotzen duten bertatik bertara ezagutzeko.

IRAN


Kulturak eta arteak garrantzi handia dute persiarren eguneroko bizitzan, batik bat poesiak. Benetan estimulagarria da herritarren parte handi batek herrialdeko poeta nagusien bertsoak buruz errezita ditzaizketen herrialde bat bisitatzea. Eta Iranen hori gertatzen da Hafez eta Ferdowsi bezalako antzinatoko poeten lanekin. Herritarrek poesiarekiko duten pasioa lehen eskutik ezagutzeko, ezinbestekoa da poeta persiar handienei eskainitako mausoleoak bisitatzea. Xiraz hirian kokatutako Hafez maisuaren mausoleoan orduak eman nituen herritarrek poetaren bertsoak lasaitasun osoan nola irakurtzen zituzten begira; badira poeten obrako pasarte jakinen esanahiaren inguruan eztabaida biziak izaten dituztenak ere. Artists Forum zentrotik kilometro batzuk mendebaldera, Iran barneko hegaldietarako aireportutik gertu, Teherango ikur arkitektonikoetako bat aurkituko dugu: Azadi dorrea (Askatasunaren Dorrea). 45 metroko garaiera duen dorre ikusgarria Pahlavi dinastiak eraiki zuen Persiar Inperioaren 2.500. urteurrena oroitzeko.

Maxhad, gune erlijioso garrantzitsua

Azadi dorrearen irudia oraindik ere gogoan, Teheran atzean utzi eta ekialderantz jotzeko ordua da. Iranen zehar bidaiatzeko gustukoaren dudak garraio bidea tren da zalantzarik gabe, gainontzeko bidaiariekin hitz egin eta paisaia ikusgarriez gozatzeko aukera eskaintzen baitu. Trenbide sareak herrialdeko hiri nagusiak lotzen ditu, eta, gainera, iristen ez den lekutara autobusez irits daiteke, azkar eta merke baita ere. Ekialdean bisitatuko dudaren lehen lekua Maxhad da, herrialdeko bigarren hiri nagusia eta xiismoaren gune erlijioso garrantzitsuenetakoa. Hiria Reza Imanen Mausoleoaren inguruan egituratzen da, xiismoaren zortzigarren imana, bertan IX. mendearen hasieran lurperatua. Konplexu erraldoi baten baitan, imanari eskainitako mausoleoaz gain Goharxad meskita ikusgarria, museo bat, liburutegi bat, lau seminario, hilerri bat eta erromes eta bidaiariak hartzeko hainbat eraikin aurkituko ditugu. Mundu guztitik iritsitako xiitek bisitatzen dute mausoleoa Reza imana omentzeko, eta, hala, konplexuaren inguruan jarduera ekonomiko erraldoia dago antolatuta. Ingurune guztia hotel, supermerkatu, oroigarri denda, jatetxe, dendaz... beteta dago. Eta ez da harritzekoa, egunero-egunero milaka baitira gunea bisitatzen duten erromesak.

Musulmanak ez diren bisitariak mausoleoa arazorik gabe bisitatzeko aukera dute, baina ez dago kamerekin sartzeko aukerarik (mugikorrarekin bai), eta, emakumeek, gorputza erabat estali behar dute txador batekin. Segurtasun neurriak benetan izugarriak dira

Rayeneko zitadela, Bamekoa baino txikiagoa den arren, oso ederra da. Mila bat urte inguru ditu eta bikain kontserbatuta dago.





konplexu guztian, batez ere sarreran, eta, beraz, errespeta jokatu eta oharkabean pasatzea gomendagarria da. Konplexuko gunerik sakratuena, hau da, Reza Imanen Mausoleoa, bisitatzea esperientzia ahaztezin da. Ispilu ederrez apaindutako hormez betetako korridore luze bat igaro eta gero, bisitaria Reza imanaren gorpuzkiak hartzen dituen mausoleoaren areto zentralera heltzen da. Irudia ikaragarria da: ehunka erromesek hilobia inguratzen dute bertako barroreak ukitu eta laztantzeko asmoz. Errezo eta negar zotinek bat egiten dute espiritualtasunez betetako giro txundigarria sortuz. Kanpoko patioan, berriz, giroa askoz lasaiagoa da; erromesak otoitz egiten, jaten, hitz egiten edo besterik gabe zeremonia erlijiosoz betetako egun luze baten ostean atseden hartzen aurkituko ditugu. Mausoleoaz aparte, hori bai, ezer gutxiago du Maxhad hiriak bisitariari eskaintzeko, eta, hala, behin bisita amaituta hegoalderantz jarraitzea erabaki dut.

Trenez bigarren bidaia luze bat egin ostean, Kerman hirira heldu naiz, Lut basamortuan. Izen bereko probintziaren hiriburua, Kerman Zetaren Bideko geltoki garrantzitsua izan da antzinatik. Gaur egun probintzia munduko pistatxo ekoizlerik handiena da, hirian zehar fruitu lehor ezaguna saltzen duten denda ugari argi uzten duten bezala. Hirian balutx etniako

herritar ugari bizi dira, Kermanekin muga egiten duen Sistan eta Balutxistan probintzian baitute jatorria balutxek. Bidaiaria berehala erakarriko dute balutxen jantzi korotsuek, bereziki emakumeek erabiltzen dituztenak. Emakumeotako asko Ganjali Khan bazarreko kalekka labirintikoetan kumino beltz aromatikoa saltzen aritzen dira. Bazarra hiriko erakarri nagusietakoa da, eta izen bereko konplexuaren parte da. Konplexuaren erdigunean plaza errektangeluar eder bat dago, tokikoek paseatzeko eta elkarrekin biltzeko baliatzen dutena. Bazarreko giroa, nola ez, bizi-bizia da; bisitariak nonahi aurkituko dituzten denda interesgarriak, eta interes artistiko bereziko gunerik ere ez da falta, adibidez bertako *hamam* edo bainu publikoak. 1631n eraikitako *hamam* ikusgarriaren dekorazioa txundigarria da; azulejo, iztuku eta fresko konbinazio ikusgarriak edertasun paregabea ematen dio guneari.

Munduko adobezko egitura handiena

Kermanen hego-ekialdean Bam dago, hiri-oasi txiki bat. Bertan, munduko adobezko egitura handiena aurkituko dugu: Arg-e Bam edo Bameko zitadela. 2003an, bai zitadela bai hiri modernoa gogor kolpatu zituen 40.000 hildako eta kalte material zenbatezinak eragin

zituen lurrikara ikaragarri batek. Hiri aberatsa zen Bam, baina kolpe izugarria jaso zuen hondamendiarekin, Irango Gobernua azken urteetan laguntzen bidez bertako egoera hobetzen saiatu bada ere. 2.000 urteko antzinakotasuna duen zitadelak –Unescok gizateriaren ondare izendatu zuen 2004an– kalte handiak jaso zituen lurrikararen ondorioz eta uneotan berau berreraikitzen ari dira; bertakoek lanak amaitzean turismoa hirira bueltatzea espero dute, guztiz beharrezkoa dute-eta. Bam bisitatzea beharrezkoa da, eta ez bakarrik zitadelaren edertasunagatik, baita inguruko desertua ezagutzeko ere. Mendez zipriztindutako inguruan, paisaia ikusgarriak eta artzainen herrixka pintoreskoak aurkituko dituzte bidaiariak. Hiri bisitatzeko beste arrazoietakoa bertako datil gozoak dira, Iran guztiko preziatuenak. Ostatu hartzeko aukera gehiegirik ez du eskaintzen uneotan hiriak, baina hainbat sendik bidaiariarentzako etxe txiki erosoak ireki dituzte azkenaldian. Bidaiariak gertuko tratua jasoko du beraietan.

Kermanera itzuli eta mendebalderantz bidaia jarraitu aurretik, Rayen herriko zitadela bikainean geldialdia egin dut: Arg-e Rayen. Orain dela 1.000 urte inguru altxatu zuten, eta, Bamekoa baino askoz txikiagoa bada ere, bertaratzea merezi du, kontserbazio

egoera bikainean baitago. Bisitariak bertako kalekka labirintikoetan galtzeko aukera izango du, baita haresira igo eta inguruko mendietako ikuspegi bikainez gozatzeko ere. Bam eta Rayen hirietara heltzeko, tren har daiteke Kermanen.

Rayenetik gertu Mahan dago, Xazdeh lorategiagatik ezagutzen den herria. XIX. mendeko lorategi persiar bikaina gizateriaren ondare izendatu zuen Unescok. Lorategia desertuaren erdi-erdian dago, eta ingeniari lan bikain baten ondorio da, arkitektoek lurzoruaren berezko inklinazio naturala baliatu baitzuten ura eramateko kanalak eta iturriak eraikitzeko. Lorategi persiar orotan bezala, konplexua zuhaitz, lore eta urez betetako baratze ikusgarria da. Turista ugari bisitatu dute, eta, irandarren ohitura gustukoenetakoa jarraituz, ohikoa da familiak piknik bat egiten ikustea lorategien edertasunaz gozaten duten bitartean.

Kerman atzean utzi eta beste tren bat hartuta, nire bidaia zatirik turistikoenean sartu da. Hurrengo egunetan indartzen ari den Irango turismo industriaren bihotza bisitatuko dut: Yazd, Xiraz eta Isfahan hiriek osatutako triangelua. Treneko eserlekutik, jada erabat erlaxatuta, deserto amaigabea begizatzen dut, persiarren kondairazko lurretan oraindik ere zain ditudan leku txundigarriak ezagutzeko irrikatan. •

Ezkerreko argazkian, mendizaleak Alborzeko mendietan, Teheran iparraldean. Lerro hauen gainean, Bam inguruko mendien gainak elurtuta.